

*Gure ustez, iker-adar honen agerpena oso txikia da, eta baita ezegonkorra ere, ez da-eta berez derrigorrezko irakasgaia eta esleitzen zaizkion kredituak (6 kreditu) oso gutxi dira-eta, Filologietan eta Itzulpengintza eta Interpretaritzan Lizentziatu titulua lortzeko egin behar diren beste irakasgai batzuekin konparatzen badugu behintzat.*

## SOZIOLINGUISTIKA IKASKETAK FILOLOGIA, GEOGRAFIA ETA HISTORIA FAKULTATEAN

**Maitena Etxebarria**

*Hizkuntzalaritzako Katedraduna Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila (UPV/EHU)*

Hona dakargun txostenaren helburua Soziolinguistika ikasketak gaur egun, alegia 2006-2007 ikasturtean, dauden egoeraren berri ematea da UPV/EHUko Filologia Fakultatean (Arabako Campusa, Gasteiz). Eremu honetako irakaskuntza, indarrean dauden Ikasketa Planen arabera, ondo-ko ikasketetan zehar banatzen da: behean zehazten diren Titulazio batzuetako Bigarren Zikloan (Lizentziaturako 3º edo 4º ikasturtean), Hirugarren Zikloan (Doktorego Programetan alegia) eta Graduosteko Ikastaroetan (Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketen Masterra, 2007-2008-rako aurreikusita). Lizentziaturaren egungo ikasketetan irakasgaia hautazkoa da, Doktorego Programetan, batetik Hizkuntzalaritzakoan eta bestetik Hizkuntzalaritza Aplikatuak, irakasten diren ikastaroak (3na kreditu Doktorego Programa bietan) oinarrizkoak izan arren. Gure ustez, iker-adar honen agerpena oso txikia da, eta baita ezegonkorra ere, ez da-eta berez derrigorrezko irakasgaia eta esleitzen zaizkion kredituak (6 kreditu) oso gutxi dira-eta, Filologietan eta Itzulpengintza eta Interpretaritzan Lizentziatu titulua lortzeko egin behar diren beste irakasgai batzuekin konparatzen badugu behintzat.

### LIZENTZIATURA IKASKETAK (2º ZIKLOA)

Irakasgaia: SOZIOLINGUISTIKA

Irakaslea: MAITENA ETXEBARRIA AROSTEGUI

Ikasketa maila: 2º Zikloa (karrerako 3º/4º ikasturtea)

Izaera: Hautazko irakasgaia

Zein titulaziotan irakasten den: Alemaniar Filologia, Filología Klasikoa, Frantses Filologia, Ingeles Filologia, Euskal Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretaritza (taldeak gaztelaniaz eta euskaraz)

Kreditu kopurua: 6

### IRAKASGAIAREN OINARRIZKO EDUKIAK

**1. Soziolinguistika. Ikasketa eremua:** Hizkuntza kidegoa eta hizketa kidegoa. Hizkuntzen banaketa soziala.

**2. Eredu soziolinguistikoak:** Aldakortasun eremua. Hizkuntzaren

Soziologia. Komunikazioaren Etnografia. Beste eredu soziolinguistiko batzuk.

**3. Elebitasuna eta Diglosia:** Elebitasun Indibiduala. Elebitasun Soziala. Hiztongo Elebidunak. Hezkuntza Elebiduna. Diglosia.

**4. Aldakortasun Linguistikoa:** Aldakortasun Linguistikoa: Aldakortasun eta Aldaketa kontzeptuak. Hizkuntzen Aldakortasun Soziala. Aldakortasun Linguistikoa: Tipologia.

**5. Hizkuntza Ukipena:** Eleaniztasuna eta Aldakortasun Linguistikoa. Pidgin Bihurtzea eta Kreoleratzea. Mugetako Aldaerak. Mailegu Lexikoak. Hizkuntza Ukipenaren ondoriozko beste Fenomeno Linguistiko batzuk. Kode Trukaketa eta Kode Aldaketa. Hizkuntza Ukipenean garatutako Kontzientzia eta Jarrera Linguistikoak.

**6. Hizkuntza Planifikazioa:** Hizkuntza Planifikazioa eta bere aplikazio eremua. Hizkuntza Planifikaziorako Eredu Teorikoak. Hizkuntza Planifikazioaren izariak. Hizkuntza Planifikaziorako Eredu Teorikoen berriketa. Hizkuntza Planifikazioa eta Hizkuntza Eskubideak.

**7. Hizkuntza Heriotza:** Prozesuaren Ezaugarri Linguistikoak. Hizkuntza Heriotza prozesuaren Alderdi eta Baldintza bereziak. Hizkuntza Heriotza Prozesuaren sinesmen eta jarrerak. Hizkuntza Heriotza prozesuaren azalpen baterantz.

## EBALUAZIOA

-Atal handietako derrigorrezko irakurgai bereziak. (Gaiak): % 10

-Ariketa praktikoak: % 10

-Lan bat egitea (Landa laneko Metodologia, material bilketa, materialen tratamendua eta analisia): % 30

-Azken azterketa (Derrigorrezkoa da, indarrean dagoen legediaren arabera): % 50

## DOKTOREGO IKASKETAK (3º ZIKLOA)

-Hizkuntzalaritza, Sailarteko Doktorego Programa (UPV/ EHU)

-Ikastaroa: **Soziolinguistikaren Oinarri eta Hastapenak**

-Irakaslea: MAITENA ETXEBARRIA AROSTEGUI

-Ikasketa Maila: 3º Zikloa (Doktoregoa)

-Izaera: Oinarrizko Ikastaroa

-Kreditu kopurua: 3

-Hizkuntzalaritza Aplikatua, Unibertsitateko arteko Programa (Euskal Herriko Unibertsitatea, Bartzelonako Unibertsitatea eta Jaume I Unibertsitatea (Castelló))

-Ikastaroa: **Ukitutako Hizkuntzen Soziolinguistika.**

-Irakaslea: MAITENA ETXEBARRIA AROSTEGUI

---

*Gerora begira, Europear Araudiari segika, Unibertsitateko Ikasketa Plan Berrien eta Titulazio Berrien ezarketa dela eta -2009/2010 ikasturte inguruan egingo dena- ez dakigu xehetasunez zein izango den plan berri horien garapena. Hortaz, nekez aurrean daiteke zein izango den Soziolinguistika ikasketen geroa gure unibertsitatean.*

- Ikasketa Maila: 3º Zikloa (Doktoregoa)
- Izaera: Oinarrizko Ikastaroa
- Kreditu kopurua: 3

Gerora begira, Europear Araudiari segika, Unibertsitateko Ikasketa Plan Berrien eta Titulazio Berrien ezarketa dela eta —2009/2010 ikasturte inguruan egingo dena— ez dakigu xehetasunez zein izango den plan berri horien garapena. Hortaz, nekez aurrean daiteke zein izango den Soziolin-guistika ikasketen geroa gure unibertsitatean.■